

Ordiziako azoka aparta



FS 
oto istema

D. Unanue Plaza, 1
Tfnoa.: 88 93 25
ORDIZIA

ZURE ARGAZKI

- Argazkiak ordu betean
- Argazki eta bideo erreportaiak

QSS

Nekolalde, 1
Tfnoa.: 72 58 44
URRETXU

Apartamendu, etxebizitza, garaje eta merkatal lokalen eraikuntza Ordiziako Euskal Herria kaleko 10. zenbakian.

PROMOTOREA:



Tfnoak.: 88 49 50 - 88 49 54
Filipineta, 13- behe esku.
ORDIZIA



Zure edertasuna zaintzen dugu!

Solariuma
Depilazioa
Garbiketak
Azkazel postizoak
Makilaia
Manikurak

Aloska

EDERGINTZA eta USAINDEGIA

Domingo Unanue plaza, 2
Tfnoa: 88 24 10 ORDIZIA



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



ORDIZIAKO UDALA

Ordiziar guztiei eta egun horietan bisitan datozkigunei eta hainbat arazo direla eta gurekin egoterik ez dutenei festa alai eta zoriontsuak opa dizkiet.

Alkateak



ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

INEKO

ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

- Pentsugintza eta zerbitzu guztiak
- Ongarriak
- Haziak
- Ureztatze sistemak
- Baratza eta jardinerako tresnak
- Ardientzat pentsu gama berezia

☎ 199300 - 199330

Faxa:199270

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gaitean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 161463.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:
Josune Agirre, Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:
Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Joxe Begiristain, Aitor Calvillo,
Rufino Iraola, Aloña Galarraga,
Gabino Murua, Iñaki Amunda-
rain, Xabier Mendiguren, Jose-
ba Telleria, Ibai-Ertz eta Pilare
Mujika.

Azaleko argazkia: Dioni
Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 3.700 ale. 3.300 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkun-
unik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Jaione Esnaola: ardi-moztaile gaztea

*Gazte-jendea telebista aurre-
tik kendu ezinik dagoen ho-
netan, 13 urteko 'ormaiztiar'
bizi-bizkor honek, azken bi
urteetan Lierniko egunera
hurbildutako guztiak harri-
tuta utzi gintuen: hura ardiak
azkar eta txukun moztea.
Gauzak gertuagotik ezagu-
tzeko, beregana jo dugu.*

**G.- Nola hasi zinen ardi-
mozten?**

E.- 11 urterekin edo hasi nin-
tzen. Ume-umetatik gustatu
izan zaizkit ardiak. Ahizpa
zaharragoek, adibidez, ez dute
afiziorik izan. Etxean ardi bat-
zuek baditugu, eta aitari era-
kusteko eskatu nion. Haiekin
hasi, gustatu, eta ordutik aurre-
ra dextentetan aritu naiz, bai
etxekeekin, bai kanpoko zen-
baiti laguntzen.

G.- Nola mozten da ardia?

E.- Lehenengo tripa-azpiak
egiten dira. Hau da lanik zai-
lena. Gero, hankak lotu, eta
handik aurrerakoa: tripa-al-
dea, lepoa... Kontu handia izan
behar da ardiari zauririk ez

egiteko, edo larrua ez tiratze-
ko.

G.- Makinaz ala guraizaz?

E.- Guk guraizaz egiten dugu,
eta lurrean, mahairik gabe,
guztiz lehengo erara. Irudipe-
na dugu makinak gehitxo moz-
ten ote duen.

**G.- Zer moduz portatzen di-
ra ardiak?**

E.- Denetik izaten da. Batzuek
txintxo uzten dute, baina go-
goikarri ederrak ere izaten di-
ra, geldirik une batez ere ego-
ten ez direnak. Horrek asko
zailtzen du lana.

**G.- Lan nekoso al da ardi-
moztea?**

E.- Gerrirako da txarrena, go-
gortu egiten da eta. Eskuetan
ere jarri ohi da mina. Baina nik
ez dut inolako arazorik izaten.

**G.- Ezagutzen al duzu lan
honetan ikasitako zure adi-
neko beste neskarik?**

E.- Akaso egongo dira, baina
nik ez dut ezagutzen.

 **Iñaki Amundarain**

Besteek esana

"Jendeak animo asko
ematen dizu, baina bestal-
de, desinformazioaren
eraginez, batzuek solda-
duskan gauzak hobetu
egin direla uste dute, edo
intsumisioa intsolidarioa
dela, libratzeko estrategia
alegia, eta horrelako kon-
tuak. (...) Azpimarratzeko
modukoa da ikastetxe
gehienetan asanblada bat
egiteko ere baimena es-
katu beharra dagoela zu-
zendaritzari. Gazteek se-
kulako errepresioa dau-
kate ikastetxeetan zuzen-
darien aldetik".

Joseba Mintegi, ordiziar
intsumitu presoak
"Egin"eko Santa Ana
gehigarrian.

"Gaur egun hemen
GOIERRITARRA dau-
kagu, eta oraingoz aldiz-
kari honekin lan egitea eta
berari laguntzea da gure
helburua".

"Hitzaro"ko Jose Gon-
zalez ordiziarrek
"Egunkaria"ren Santa-
nak gehigarrian.

Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Euskal? Pilota

Pilota-jokoa geure-geurea dugu euskaldunok. Euskal pilota- jokoari "pelota vasca" eta "pelote basque" ere baderitzo geure auzo-erdaretan. Baina nola funtzionatzen du pilota- jokoaren munduak geure lurtean? Erdaraz! Erdaretan, espainieraz eta frantsesez.

Partiduetako iragarpenak, leihatiletako oharrak eta afitxeak, sarrera-txartelak, enpresen agerkariak, joko- txartelak, e.a., idatzizko agerkari guztiak erdaraz dabilta leku guztietan, salbuespen arraroren bat salbu. Onenean ere euskaraz erantzun nahi duenen bat topa daiteke tartean mintzatzerakoan, baina mintzameneko ohitura nagusiak ere erdarazkoak dira halako doinu eta azentu xeble samar batzuk gorabehera. Bestalde, artekariak "abesbatza" erdaldunak, ikusle euskaldunen ere aise itotzen du ahozko jardunean.

Pilota-arloko enpresek berriz "gure" kirola defendatzen omen dute, baina inoiz ere ez dira izan eta gaur ere ez dira gure kirola gure hizkuntzan eskaintze-

ko gai. Ikuslego euskaldunari mesprezu garbia egiten diote eta batere lotsarik gabe espainieraz edota frantses hutsean eskaintzen diote eskaini beharreko guztia. Artekariak betiko erdal jardunak adibidez, diru-jokoa euskaraz adierazten ez jakiteraino eta derrigorrez erdara sartu behar izateraino eraman du zaletu euskalduna bera ere.

Gertaera hori are larriagoa da gainera ondorengo kontutan hartuta. Frontoi gehienak, denak ez esatearren, udalenak dira, baina udalek enpresei erabilpen-baldintzak ezartzean ez diete inolako euskararen erabilpeneko hizkuntz politikarik ezartzen eta enpresen gurariak gehi erakundearen arduragabekeriak, aipatutako fruitua ematen du.

Lotsagarria eta negargarria! Nork/nortzuk hasi behar du/dute portaera hori aldarazteko neurri eraginkorrak hartzen geure kirola geure lurtean geure hizkuntzan iragarri, azaldu eta adieraz dadin?

Andoni Sarriegi Eskisabel (Beasain)

Erretratu zaharrak

Goierriko edozein herritako ERRETRATU ZAHARRAK behar ditu GOIERRITARRAK. Argazkia non eta noiz aterata dagoen, bertan agertzen direnak nortzuk diren... xehetasun guztiekin, ahal bada. Argazkiak hutsik egin gabe itzuliko dira, eta horretarako bidaltzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa argi eta garbi azaltzea eskertuko genuke. Mila esker!

GOIERRITARRAren zuzenbidea: 124 p.k. Ordizia. Dorre-Etxean gaude, "Correos" eta Nekazal Ganbararen gainean. Tfnoa: 889612.

BEGUÉ REDONDO JANARIDENDA

Berezitasuna janari eta fruitutan

Urdaneta 39 ORDIZIA
Nafarroa Hibilbidea 27 BEASAIN



liburudenda

- ⇒ Liburuak
- ⇒ Jostailu didaktikoak
- ⇒ Eskola materiala
- ⇒ Bulego materiala

Elosegi, 16
Tfnoa.: 88 65 00
LAZKAO



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA



MUJIK



BEASAIN ☎ 88 74 00

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:.....	721614
Donostiako Erresidentzia: ..	453800
Gurutze Gorria:	272222
DYA:	464622
SOS Deiak:	088
Eguraldi informazioa:	094
Errepideen egoera:	288888
Ertzantza (Beasain):	887350
Suhiltzaileak (Ordizia):	881362
Renfe (Beasain):	880853
Sarasola Garraioak:	880710
Pesa Garraioak:	880668
Estellesa (Donostia):	470115
Itxaropenaren tfnoa:	458005
HIES-SIDARI buruzko Inf.: ..	282666
Alkoholiko Anonimoak:	276618
Goierrri Lanbide Eskola:	880062
GOIERRITARRA	889612

Errezeta



**Xabier Martinezek
emana
Martinez Jatetxea
Ordizia**

ZURRUKUTUNA

(Aintzinako plater nahiko ahaztua, baratzuri-zopan oinarritua)

Osagaiak: 300 gr. makailau; 250 gr. zopako ogia; baratzuri buru bat; 4 pipar txorizero; tomate saltsa; olio.

Makailau gazitua apurtu eta gezatzen jarri. Pipar txorize-roak zenbait ordutan uretan jarri aurretik, edo irakin bat eman beren mamia puztu dadin, aprobetxatu ahal izateko.

Lurrezko ontzi batean baratzuriak oliotan gorritu eta zopakoa gehitu, ur dexente gaineratuz. 10 minutu pasa eta gero piparren mamia eta 2 edo 3 koilarakada tomate gehituko dizkiogu. Pixkat lehortzen denean makailau apurtua gehituko diogu su bajaran egosiz 15-20 minutuz. Zopa lodi bat geratu behar da. Nahi ezkerro Idiazabalgo gazta birrindua erantsi genezake.

Bota bertsoa



**Jon Aiestaran
Gaia: Oporretatik
itzulera
Doinua: Aita izenak
kanta beharra**

Zer stres eta zer "otxo kuarto" opor denak bukatu eutsi goiari eta hain erre ez gero beztu muturrik izango dezu non ondo pasa badezu gogo apurrik zahartutzeak ez zun utziko oporraldian zimurrik ondo pasatu duenak ez du etxeratzeko beldurrik. (ber)

Gerri ondoa liraintzeaz gain berriz pilak ondo bete ez gera etxeaz konturatzen pulxikua hustu arte egun on hauek ondorenean kezka ba ote dakarte urte guztia bota beharra oporretatik aparte min bat badaukat pozen tartean: ez dela geratzen bate. (ber)

BARANDI



TABERNA

Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA



K. Nagusia, 28
ORDIZIA

☎ 16 02 48

IRURENA

Lentzeria - Mertzeria

Urdaneta, 29
ORDIZIA

☎ 88 04 47



MAIZPIDE euskaltegia

Tfna.: (943) 88 92 31 / 32
L A Z K A O

1994-95 IKASTURTEA

Urte osoan, euskara ikasiz euskara bizi Barnetegian (6 ikastordu), nahiz kanpo-ikastaroetan (2 ikastordu)

Alfabetatze eta euskalduntze maila guztiak
IZEN EMATEA:

IRAILAREN 6TIK AURRERA
ESKATU INFORMAZIO GEHIAGO
HABEREN DIRULAGUNTZAZ

Lana

□ Mekanografia lanak egiten dira ordenadorez. 882843 telefonoa, Eli.

Salerosketak

□ Goierri anuntziatzen du GOIERRITARRAK. Gure propaganda, ez garestiena, bai onena! Merke-merke sartuko zara 3.700 txokotan (12.000 irakurle). Dei 889612ra (Inprenta-lanak ere egiten ditugu).

□ Era guztietako itzulpenak egiten ditugu Itzul Talde-kook: gazteleratik euskara eta alderantziz. Goierriko denda, lantegi, e.a.-en zerbitzura gaude. Tel.: 160803; Faxa: 880722.

□ GOIERRITARRAren kamixetak salgai gure egoitzan (Ordiziako Dorretxean). Txuri-beltzak, XL, L eta M tailak aukeran, 1.000 pztan. Aldizkariaren ale atzeratuak ere oparitzen ditugu.

Besterik

□ Bixita gidatuak GOIERRITARRAra. Aldizkaria nola egiten den esplikatuکو genieke ikasle taldeei. Interesatuok dei 889612ra.

□ 3 lagun euskaldun behar dira Leioan edo inguruetan pisua osatzeko. Deitu 801608 telefonora (Estitxu)

BEASAIN

Irailak 9: Nord kapp (Cabo norte) diapositiba bildumaren emanaldia, Kepa Gonzalezen eskutik Aizkorri Mendizale Elkartean. **16a bitarte:** Mamen Mariren erakusketa Aterpe taternan. **11a bitarte:** Agustin Vaqueroren erakusketa Kultur Etxean; lanegunetan 19etatik 21etara eta jaiegunetan 12etatik 14etara ere bai. **12tik 16ra:** Oporrei buruzko idazlan lehiaketa haur eta gaztetxoentza Ezkiaga Auzo Elkartean.

16: Kepa Gonzalezen Thailandiako diapositiben emanaldia Aizkorri M.E.an. "Harreman arriskutsuak" filmaren proiektzioa aire librean Dolareako Parkean 22.00etan Txilibutxof-en eskutik (euria eginez gero La Salleko pilotalekuan). **16tik 25era:** Jubilatutxuean eginiko eskularen erakusketa Kultur Etxean. **17tik aurrera:** Eskualdeko Xake Txapelketa Udaletxeko Batzararetoan (Kultur-etxetik sartuz), Alfil xakelarien eskutik. **Urriak 7a bitarte:** Marjose Arkaut-en erakusketa Aterpen. **18:** Jubilatuen bazkari herrikoia Antzizar Polikiroldean. **20:** Luis Mari Elizalderen hitzaldia, "Hurtzaindegitik haur eskolara", Batzarre-aretoan, Seaska hurtzaindegiaeren eskutik.



IGARTZA-LOINATZ AUZOKO JAIK

Osteguna, 8: (Jaien hasiera) 18.30etan Meza Loinatzko Andra Mariren ermittan.

Ostirala, 9: 19.00etan suziriak. 10.45etan moztorro lehiaketa. 23.00etan Izadi taldearekin dantzaldia.

Larunbata, 10: 10.00etan igeriketa proba. 16.00etan Mus Txapelketa Loinatzpe ikastetxean. 17.00etan haur jolasak. 17.30etan Toka lehiaketa jubilatuentzat; ondoren merienda. 23.00etan su artifizialak, 80 metroko kas-kada barne. 11.30etan Izadi taldearekin dantzaldia. 01.30etan Pasodoble dantza lehiaketa, gazte eta ezkonduentzat.

Igandea, 11: 9.30etan XIV. jubenil mailako txirrindulari proba. 12.00etan Meza Martin Deunaren Pa-

rrokian, auzoko hildakoen alde. 12.15etan, Oria txaranga eta bu-ruhaundien irteera. 14.30etan herri bazkaria. 18.00etan herri kirolak eta 20.00etatik 22.00etara, dantzaldia Oria txarangarekin.

Beasain/Ordiziako Goardiazko botikak:

Irailak 10-11: Ato-rrasagasti; **12:** Arriola; **13:** Urbizu; **14:** Ato-rrasagasti; **15:** Azpili-kueta; **16:** Jauregi; **17-18:** Cuesta; **19:** Larnaga; **20:** Cuesta; **21:** Arriola; **22:** Urbizu.

Ordiziako Herri Antzokia:

Ostirala 9, 7,30- 10,15 "Maberick". **Larunbata 10,** bertsolariak. **Igandea 11,** 7,30 -10,15 "Maberick". **Astelehena 12,** 7,30 "Maverick". **Ostirala 16,** 10,15 "Los Picapiedra". **Larunbata 17,** 7,30 -10,15 "Los Picapiedra". **Igandea 18,** 4,45 -7,30 -10,15 "Los Picapiedra". **"Astelehena 19,** 7,30 "Los Picapiedra".

Mendizaleak

Beasaingo Aitzgorri M.E.: irailak 11: Zarateaitz; **18:** Oroimen eguna (Besaide).

Ordiziako Mendizaleak: **18:** Santa Ageda-Tellamendi-Betsaide.

Pausogaizto G. M.: 17-18: Piriniotako hirumilak.

ARKATZA

LIBURUDENDA

Fotokopiak

Kiniela-Loto seilaketa

Igartza Oleta, 12

BEASAIN

☎ 88 22 09

Linterneritza

Gasa

Berogailuak

BAKARRIK

☎ 88 07 65

908 671542

Igartza Oleta 10

BEASAIN

KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOGEGIA

Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea
(Polikiroldegi ondoan) ☎ 889252 BEASAIN



Egitaraua

Irailak 8, osteguna

19.30etan Barrena Kultur Etxean, Iñaki Larrañaga eta Kike Amunarrizen hitzaldia: "Euskararen egoera gizaratean eta 'Galtzaundi' euskara taldearen esperientzia". Antolatzaile 'Hitzaro' euskara elkarte.

Irailak 9, ostirala

12.00etatik aurrera, trikitilariak herriko kaleetan. **18.00etan**, Jm Barandiaran Plazan, herri kirol lehiaketa honako herri hauen artean: Zegama, Zerrain, Segura, Olaberria, Beasain eta Ordizia.

Irailak 10, larunbata

18.30etan, Jm Barandiaran Plazan, herri kirolen finala. **10.30etan**, Herri Antzokian Bertsolari Jaialdia: Joxe Agirre, Jexux Arzaillus, Joxe Ramon Elorza,

Maialen Lujanbio, Mikel Mendizabal, Jon Sarasua.

Irailak 11, igandea

9.30etan, Ordiziako Txistularien goizeresia. **9.30etatik aurrera**, Idiazabal Gazta Kofradiaren V. Batzarra. **11.00etan** Oiangun erromerian parte hartuko dutenentzako pintxoak eta ardoa. Jarraian bertsolari gazteen saioa. **12.00etan**, Barrena Kultur Etxean, Lazkao Txiki III. Bertso-paper Lehiaketaren sari banaketa. **13.30etatik 14.30etara**, Oiangun, trikitrilarien jardunaldia. **16.00etatik 17.00etara**, Oiangun, haurrentzako jolasak eta toka txapelketa. **17.30etan**, Oiangun, helduen bikoteen arteko 4. Dantza Txapelketa. **19.00etatik 21.00etara**, trikitrilarien jardunaldia.

□94-95 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK GOIZTIRI AEK EUSKALTEGIAN.

"Euskaldun izateak merezi du" lemapean zure euskara ikasi edo hobetzeraz animatuz, matrikulazio epea zabalik duzu irailaren 30era arte. Ikasturteak urritik ekainera iraungo du, eta otsailean ere matrikulazio epea zabalduko da.

Goizez 2, 3 eta 5 ordu-tako moduloak izango dituzu, eta arratsaldez 2 ordutakoak (14.30etatik 16.30etara, 17.30etatik 19.30etara eta 19.30etatik 21.30etara). Euskalduntzeko urrats guztiak, alfabetatze eta EGA mailak. Ikastaro hauek udaletxeak subentzionatuko dizkizu.

Matrikulatu edo informazio gehiago nahi izanez gero, zatoz goizez 9etatik 1era edo arratsaldez 4etatik 8etara.

* Ordizian: Santa Ana Ikastetxea, 889174 tfonoa.

* Beasainen: Kale Nagusia, 5-3.a, 889340 tfonoa.

* Lazkaon: Elozegi K., 16-2.a, 889174.

□EPA, HELDUEN-TZAKO ESKOLA.

Beasaingo Helduen Heziketarako Eskola ofizial eta dohaineko honek aukera hauek eskeintzen dizkizu:

* Irakurtzen eta idazten ikastea.

* Zeure kultura orokorra zabaltzea.

* Eskol-graduatua lortzea.

Matrikula egiteko epea irailaren 1etik 30era. Argibideak Beasaingo Loizape ikastetxean. Tel.: 888758, 3etatik 6,30etara.

□NEGU-EGONALDIAK EZINDUENTZAT.

Beasaingo Udal Gizarte Ongizateak programa bat diseinatu du egoera larriko gutxitu fisikoentzat. Parte hartzeko interesa dutenek 21etik 64 urte bitarte, %65etik gorako ezintasuna eta mogikortasun zailtasunak eduki beharko dituzte. Programa urriaren 20etik abenduaren 13a bitartean garatuko da Alikanten. Informazio gehiago izateko jo udaletxera.

MERCERIA • LENCERIA

Arantzaz

MERTZERIA • MIHISEDENDA

JOXE MIGEL BARANDIARAN ENPARANTZA, 3 - Tel. 88 75 15
ORDIZIA



ALKARTASUNA LIZEOA Kalitatezko Euskal Hezkuntza

- * 6.200 liburuz osaturiko LIBURUTEGI INFORMATIZATUA.
- * HIZKUNTZ LABORATEGIA eta NAZIOARTEKO ELKARTRUAKETAK: Gales eta Oxford.
- * ORIENTABIDE Ihardunaldiak.
- * TEKNOLOGIA hezkuntza eta IRRATI zein BIDEO tailerrak.
- * Udako INGELERA IKASTAROKAK Breñaña Haundian.

Beraz... ZUK ZEUK ERABAKITZEN DUZU!
Maiatzaren 4etik 18ra arte izena emateko epea.



Rufino Iraola

**Zaldibitar idazle
eta kazetaria**

**“Hil ere,
taldeka hilko
bagina,
lasaiago
hilko
ginateke”**

Behin batean bazen Laxaro izeneko lapur ospetsu bat, menditik ganadua osten etengabe zebilena. Bizkorrenari ere erbia inoiz ustekabea atera ohi zaio eta Laxarori ere hala gertatu zitzaion egun hartan. Aralar mendian bolada hartan zebilen txekor-idiskorik handiena larrutzen harrapatu zuten goardia zibilek. Detenitu eta eskuak lotzerakoan bie batera eraso zien Laxarok. Armei kolpe egiteko betarik gabe lurreratu zituen biak, eta armaren beharrik gabe, ostiko eta ukabilka, utzi zituen lurperako bien ala biak.

Kostata, baina halako batean justiziaren zepoan erori zen gure Laxaro. Beste mundura zihoan ermentari zaharrak salatu zuen, Aralar-ko heriotzen ondotik, esku-biko eskutik esposa zintzilik zuela, Laxaro nola joan zitzaion eta mesedez askatzeko nola eskatu zion esanez. Bazter guztiak harrituta zeuzkan Laxarok. Bakarlana ote gero bi gizon armatu taimana hartan garbitzea? Konplize bila, hari horretatik

Denena, inorena ez

tiraka egin zitzaizkion interrogatorioko galdera guztiak. Zeharo asaldaturik jarri zen gizona. Ea zer uste zuten, ea txepel haiekikoak egiteko bakarrik ez ote zen gauza iruditzen al zitzaien... Baietz, ba! Berak bakar-bakarrik hil zituela eta berak bakar-bakarrik asumitu nahi zuela erantzunkizun osoa.

Laxaroren portaera ez da ohikoa gizarte honetan, salbuespena baizik. Komeni zaigun hura konpartitzeko bakarrik hezitzen gaituzte txiki-txikitatik. Lehenengo konpartitu genuena da zapategiko kristala harrika haurtea: “Niri hark esan zidan, halako ere hemen zen, nik harria poliki bota nuen...” Total, ahal izanez gero inguruko denak inplikatu. Piper egiten bagenuen, ideia beste norbaitena izan zela.

Agoazila etxera kejeekin joaten zenean, “izan ere koadrila horretan badaude bat ebo bi...” esango zion amak. Zigarroa erretzen norbaiten kulpaz hasi ginen. Herriko apaizak sermoia ez zuen inoiz guretzat egiten, beste guztientzat baizik.

Lanean hasi nintzenean, niri ez zitzaidan inoiz brokarik hausten; gaizki zorrozten zuenak edo taladroa gaizki konpontzen zuenak zeukan errua. Gure semea ez da inoiz mozkor, drogadikto, lapur edo bioladore izango; konpania txarrek bultzatuko dute horretara eta gizartea da erantzule. Horrela, oso izaki pasiboz bete dugu mundua, dena bestek egitekotan utziz, erantzunkizuna taldeari edo Estatuari atxikiz. Hil ere, taldeka hilko bagina, lasaiago hilko ginatekeela iruditzen zait.

“Dena” dioenak, sarritan, “deus ez” dio. Eta denena dena, inorena ez da. Erantzunkizunarekin horrelako zerbait ari zaigu gertatzen.



BISITA ORDUAK

Larunbata: 11etatik, 14etara
16etatik, 18etara

Igandea: 11etatik, 14etara

Lanegunetan: 10,30etatik,
14,30etara, aurretik deituz.

☎ 80 17 24

HEGOA TABERNA

**Goierri kalea, 12 (atzekaldea)
ORDIZIA**

inlingua
hizkuntzak

**INGELES, ALEMANIERA,
FRANTSESA ETA ARABIERA**

Matrikula zabalik

Jatorrizko irakasleak

Maila guztiak

J.M. Iturrioz, 11-1. ☎ 16 05 72

BEASAIN

Elkano k., 8-1. ☎ 88 11 37

ORDIZIA

Iparragirre, 8-1. ☎ 72 22 23

ZUMARRAGA

Eurria ari du

Eurria ari du hau idazten ari naitela, iraileko lehen egunean. Oporrekin batera, bukatu dira udako berroak ere. Ezagutzen ditut, eguraldi-aldaketa hau dela-eta depresioak jota, burumakur, ezertarako gauza ez direla dabilzan errukarriak. Baina bagara beste batzuk ere, arnasa lasai hartzen oraintxe hasi garenak. Ez bakarrik lehortearen beldur bizi diren baserritarak: kalekumeen artean ere asko gara, lehengo ito behar hori behingoz amaitu dela-eta pozten garenak. Akabo uda honetako bero sapa, kitto urtebetez behintzat sargori zikina.

Aurki aterako ditugu armairutik jertse, xira, anorak, beroki eta gabardinak, bitarte honetan pipiak jan ez badihu behinik behin. Gure zain dugu aterki-ontzian goardasola zaharra, hainbat egunetako lagun zintzoa, baita bota handiak ere, putzu artean plisti-plasta lasai ibiltzeko.

Baina eurria, benetan gozo eta ederra, etxeko leiho atzetik ikusteko da, kristala zipriztintzen, kalea busitzen ari dela. Horixe dugu gustora eta patxadan sentitzeko aukera-aukerako unea. Eurria ari du. Egin dezala ba, gogotik.

 Xabier Mendiguren

Ikastolara itzultzeko gogorik bai?



Mikel Otamendi
ordiziarra
11 urte

Ikastolara joan nahi dut. Oporretan aspertu egiten naiz lagunik gabe eta ikastolan lagun asko dauzkut jolasteko. Baina ikastea ez zait gustatzen.



Oier Iturrioz
ordiziarra
10 urte

Nik ikastolara joateko gogoak daukat. Ikastolan lagun asko ditut eta oporretan nagoenean gutxiago. Baloiarekin jolastu nahi dut ikastolako lagunekin.




Aritz Mendizabal
ordiziarra
10 urte

Bai eta ez. Oporretan ikastolan baino hobeto pasatzen dut, ikastolan beti lana egin behar delako. Baina ikastolan lagun gehiago dauzkut jolasteko.

Bitxikeriak

Euskal baladen xorta xumea bezain ederra da. XV mendeko koplak bat, idatzirik gordetzen den zharrenetako bat dakarkizuegu sail berri honetara: "Juan Lazcano beltzarana / Gipuzcoako kapitaina / Frances osteak jakingo dik / Ura Ondarrabiyan zana". Lazkaoko Juan handikia 50 zaldunekin iritsi zen Hondarribira 1476.ean-edo. Han, jendea bildu eta 1.000 gizonez osatutako frantziar gudarostearen aurka borrokatu ziren hauek, 300 bat hil eta beste hainbat atxituz. Gertakizunak eragin zion norbaiti eresi anonimoa idaztea.

ARDOTEGIAK

— B —
ELOSEGI
— D —

— G —
ARACO
— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89

Fax: (943) 88 80 89 OLABERRIA (Gipuzkoa)

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)



BEASAIN

UDAL EUSKALTEGIA



LOINAZKO S. MARTIN PLAZA
KULTUR ETXEA, 1.a
Tel. 889094

Maila guztiak: euskalduntze, alfabetatze eta EGA

2 - 3 eta 5 ordutako erritmoak
Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu. Galde ezazu.
16 urtez gorakoentzat

Matrikulaldia: irailaren 5etik 21 era arte

Ba al dakizu...?

“JUPITERREKO KRA-TERRAK N-LEAN” izenburukiko artikulu kurioa ekarri zuen uda hasieran “Egunkaria”k: “(...)Añorgako kamioien irteera, Legorretako tuneletako itukinak, peralte alderantziz duten Alegiko bihurtuneak, Etxegarateko txapuza historiko monumentala, bost pezeta balio ez duen asfaltoa... Berlindik Idiazabalera eta Aguraindik Cadizera 4 bideko errepidea dago, gure etxean falta da pusketatxo: lotsagarria ezta? Dena den udazkena hemen da, eta hauteskundeak direla eta ez direla beste 100 metroko bidezidor puska inauguratzen badigute...”. Egia esan, lehen baino hobeto dago egin dena eta bentaja handia egin digu Goierriko autobiak. Etxegarateko portua, ordea, zuloz josirik daukagu.

LUIS PEDRO PEÑA SANTIAGO, Irungo mendizale, idazle eta etnologo ezaguna hil berria da. Gipuzkoako, Goierriko eta Aralar-eko parajeak inork baino hobeto ezagutzen zituen eta horien berri eman zuen liburu eta artikulu ugari. Azkenaldian hurrengo idazlanak jorratu zituen: Sandrateiko galtzada, Aralar-eko udako erromeria, Abaltzaketako Txutxurru-mendi, Gaintzan egiten den ahuntzes-

ne-gazta eta Gipuzkoako azken gari-saila izan daitekeena, Segurako Aizkoeta baserrikoa hain zuzen.

JOSE MARIA AZNAR, PP-ko presidenteak bisitatu zuen Goierri ia oporretan ginela. Beasaingo Estanda fundizioan, Ordiziako Txapel Gorri Elkartearen eta Castillo Hotelean egon zen, besteak beste. “Goierriko Herrien Ekintza” fundaziokideekin izan zen, Indar-eko Larrañaga, Bilore, Gabiria fundizio, Gerra anaiak, CAF eta “Goyerri” gruetako ordezkariekin.



JUAN MARI JAUREGI legorretarraren izena dabil hitzetik hortzera, Gipuzkoako gobernadore zibil berria (lehen gobernadore euskal-

duna) izan daitekeelakoan. Diktadura garaian ETA inguruan ibilia, PCEko historikoa, orain PSE-EEko zinegotzia da Tolosako Udalean, kiroletako ordezkaria.



AMAIA USABIAGA beasaindarrak “Andoingo Toponimia” liburua plazaratu berri du, bertako Udalak egin zion eskaria betez. Beterriko berriekin segiz, Aduna, Asteasu, Billa-bona, Larraul eta Zizurkilgo herriak bildu eta, herri txikiei ezinezkoa zaien artxibero-langile bat eskuratu dute. Artxibategiak irekiak dituzte interesatuentzat. Idea eredugarria dela derizkiogu Goierriko herrientzat ere.

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL


AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA

Tfona eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfona: 880543 BEASAIN

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

II

HIDALGO

BITXITEGI - ERLOJUTEGI

Legazpi kalea, 4
Tfona: 880406
ORDIZIA

OEAJ **EuE**-rekin elkarriketatzen ari da hurrengo Hauteskunde Autonomikoei begira. Azken bileretako bat Ataungo Martin Auzmendiaren baserri berrituan ospatu zen, EAJtik Ollora, Egibar, Gebara eta Zubizarreta zirela eta Gurrutxaga, Baztarrika, Goikoetxea eta Auzmendi bera, berri, EuEren aldetik.

ONIKOLAS LEKUONA artista ordiziaria zenaren erakusketa dago ikusgai Zarauzko Euskal Photomuseum-ean, abuztu hasieratik irailak 11 bitarte. Lekuona (1913-1937) Fruniz-en hil zen bonbardaketa baten ondorioz (ikus haren biografia 19. GOIERRITARRAn). Bere argazkigintza lanaren lehen erakusketa honetan fotomuntaia bereziak ikus litezke.

OURBIAN SEKULAKO JAIA ospatu zen Saninaziotan, seigarrenegoz, 2.000 lagun inguru bildu zirela. Hasparren, San Millan, Segura, Idiazabal, Zegama eta Zerainek osatzen duten Partzuegoak antolatu zuen jaia eta herriarteko-anaitasun giroan joan zen. Joseba Etxeberria, Arantzazuko segurar frantziskotarrak eman zuen meza eta Goiburu eta Intxaustiren kargu joan ziren bertsoak. Partzuegoaren lehendakaria (Xabier Oiarbide zegamarra) eta Goierriko udal ardura-dunak ere bertan ziren. Kirol ekintze-

tan Zegama (Inazio Katarain aizkolaria, Xanti Katarain harrijasotzailea, Aitor Perez koxkoletan, Iker Larrea korrikalaria, Joxe Andres Arrieta txingalaria eta Esteban eta Joxe Mari Arakama trontzalariak) gutxigatik gailendu zitzaion Segurari (Luis Juantorena aizkolaria, Iñaki Goenaga harrijasotzailea, Sanet Garmendia koxkoletan, Imanol Insausti korrikalaria, Juan Migel Larrea txingetan eta Jesus eta Inazio Intxausti trontzalariak). Zegamako Jesus Katarain zalduna izan zen azkarrena zaldi-karieran.

taldea edukitzera iritsi zen, orain 50 baldin baditu ere. Artzantza ia utzita badu ere, oraindik ardi-gazta egin eta saltzen du. Juan Bautista Arruabarrena, "Koai" zaldibitarak 92 urte ditu eta Joakina Etxaberekin ezkondua dago. 200 burutako artaldea 68an saldu zuen eta egun 20 ditu. Azeriak izan zituen etsairik amorratuenak, dioenez. 3. omendua ere zaldibitarra da: 92 urte-tako Migel Antonio Sukia, "Tximela", 8 urte zituenetik artzantzan ibilitakoa eta Juana Muruarekin ezkondua. 180-190 ardi edukitzera iritsi bazen ere, orain 80 dituzte. Hirurak ere badi-



Anjel Imaz, Juan Bautista Arruabarrena "Koai" eta Migel Antonio Sukia "Tximela".

ARTZAI-EGUNA zela eta, irailak 4ean omenduak izan dira, beste zenbaiten artean, Goierriko hiru artzai. Etxegaraten bizi den 86 urteko Anjel Imaz idiazabaldarra, 300 burutako ar-

tuzte jartzeko moduko istorio ederrak, nondik nora ibiltzen ziren artaldeekin, e.a. Mutiloko Kontxi Aldasoro irabazle eta Zegamako Mikel Etxezarreta bigarren, izan ziren gazta lehiaketan. Zorionak denoi!



JCS & BEL

ILEAPAINDEGIA
Azken teknika
eta nobedadeak

Urdaneta, 15 ☎ 88 82 52 ORDIZIA

*Solariuma
eta
Lurrindegia*

ITZUL TALDEA

Era guztietako itzulpenak egiten ditugu
(gazt./eus. eus./gazt.)
Goierriko denda, lantegi,
e.a.-en zerbitzura.
☎ 160803 Faxa: 88 07 22



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

**ITURRIOZ 11
BEASAIN**

E. P. A.

Helduentzako eskola
Eskola ofiziala eta dohainekoa

Beasaingo Helduen Heziketarako Eskolak, aukera hauek eskeintzen dizkizu:

- Irakurtzen eta idazten ikastea
- Zeure kultura orokorra zabaltzea
- Eskol-graduatuak lortzea

Matrikula egiteko epea:
Irailaren 1etik 30era
ARGIBIDEAK
Beasaingo LOINAZPE Ikastetxean
☎ 88 87 58, 3etatik 6,30etara

AIMAR LARREA BEASAINDARRAREN OPORRAK MEXIKO ETA CHIAPASEN “Hemen ez gara Chiapaseko ezertaz enteratzen”

Oporrak aprobetxatuz,
eta zerbait ezberdina
ikusi nahian,

Mexiko aldera jo zuen Aimar Larreak beste lagun batekin batera. 16 egun egin zituzten bertan. Mexiko hiriburuan bertan, Chiapasen eta Guajacan izan ziren.

Hauteskunde kanpaina eta Chiapaseko arazoa gertutik bizi izan ditu Aimarrek.

- 3 egun pasatu zenituzten Chiapasen. Zer aurkitu zenuten bertan?

- Chiapaseko hiriburuan bakarrik egon ginen. Bi kontaktu geneuzkan. Joan eta berehala esan eta ikusi genuen: hura gerra egoeran zegoen. Gu iritsi baino 2 egun lehenago, 8 lagun bidali zituzten Chiapasetik. Egoera oso gaizki zegoen. Egoera hartan, ia ez genuen ezertxo ere ikusi. Geldi egon behar izan genuen. Abuztuaren 6, 7 eta 8an izan ginen Chiapasen. Sean, armada zapatistak konbentzioa egin zuen San Cristobal de las Casasen. Ez zegoen ezerrez. Militarrak bidean, eta handik ezin zen pasatu, beharrezko paper eta justifikaziorik gabe. Lacandona basoan sartzea ezinezkoa zen. Boterea beldur da, turistik Chiapasen benetan gertatzen dena kanporatuko dutenaz.

- Borrokarekin bat al datoz herri-tarrak?

- Ez dute hitz egiten, eta gutxiago turistikin. Beldurra daukate.

- Hemengo komunikabideek hango errealitatea ondo jasotzen al dute?

- Ezta pentsatu ere. Ez gara ezertaz enteratzen. Hemen telebistan ikusten duzu, lau tipo basoan sartuta daudela. Nik ez dut hori horrela ikusi. Pintadak kalean ikusi, eta konturatzen zara ez direla pintada politikoak. Mediki bat behar dela, eskola behar dela... horrelakoak. Hala ere, guk ez dugu benetako egoera ikusi. Baina nik uste dut guri erakusten digutenak eta egiak ez daukala zerikusirik.

- Chiapas Mexikoko estaturik pobreena dela esaten da.

- Guajaca eta Guerrero, Chiapasekin muga egiten duten beste bi herrialdeetan, Chiapaseko hiriburuan baino miseria gehiago ikusi dugu. Chiapasen bertan ez dugu zapatisten aldeko pintadarik ikusi, baina bai Guajacan. Hango unibertsitateko irakasle batekin egon ginen eta hark esan zigun, Guajacan jendea janaria pilatzen hasi zela, zapastiten gerra hori Guajacara ere zabalduko ote denaren beldur. Hango herriarrek, gerra hori zabaltzea posible ikusten dute, oso pobreak baitira.

- Zerk harritu zaitu gehien?

- Jendea nola bizi den. Beraien kezka



da, gauean zer izango duten jateko, edo biharko zer izango duten jateko. Beste ezer ere ez zaie inporta.

- Hauteskundeak egin berri dira Mexikon. Chiapas nola gelditu da hauteskundeen ondoren?

- Zapatistek hauteskundeak iruzur bat izan dela esaten dute. PRIk irabazi du, Chiapaseko gobernadorea PRIkoa da eta auskalo zer gertatuko den.

- Hauteskunde kanpaina bizi izan al duzue?

- Mexiko hiriburuan hauteskunde kanpaina izugarria izan da. Mexikarrek esaten zuten, ez zutela sekula ere ikusi horrelako lehiarik alderdien artean. Telebistek ere asko jarraitu dute kanpaina. Mobilizazio handiak egin dira, jende askok hartu du parte.

 Loinaz Agirre

MARRON — ZAZPI HAUNDIAK

- ▲ Everest 8.848 m. — 1993-5-6
- ▲ Kilimanjaro 5.895 m. — 1994-5-3
- ▲ Makinley 6.236 m. — 1994-6-8
- ▲ Elbruk 5.633 m 94ko abuztuan
- ▲ Kartenz Piramideak 5.542 m.
- ▲ Vinson 4.897 m.
- ▲ Aconcagua 6.960 m.

Zorionak
Marron



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA
Oriako Pasealekua, 20
Tfona: 88 87 02
BEASAIN

Postuzaleekin berriketan



Felix Imaz, erreminta eta jantzi-saltzailea, tolosarra

40 urtetik gora daramazkit Ordizian. Heredentziaz nago hemen. Lehenengo aitona eta gero aita izan ziren, baserriko tresna, oinetako eta arropak saltzen.

Izugarri aldatu da. Torrelavegatik behi tratalariak trenez etortzen ziren Ordiziara. Asteartean iritsi, eta asteazkenarako, txukun-txukun jartzen zituzten behiak. Jende asko erakartzen zuen ganaduak. Baina gaur egun, ganadurik ez dago eta jendea asko gutxitu da.

Ikusmiran etortzen da batez ere jendea. Azoka berezira jende gehiago etortzen da eta gehiago saltzen da. Jendeak errazago 'pikatzen' du. Bezerorik onena, erdi-baserritar hori da.

Ordizian azoka oso ondo antolatuta dago. Azokari garrantzia handia ematen zaio eta jende guztia herri honen inbiditan dago.



Mari Niebes Begiristain, barazki-saltzailea, Olaberriakoa

Guretzat egun txarra izaten da azoka berezia. Jendea ikustera etortzen da, eroatera baino gehiago. Eta asteazken normaletan ere gauza bera gertatzen da. Zerikusi handia izan du "Eroski" horretan. Hori jarri dutenetik asko jaitsi da. Lehen, errekaiderak, maioristak etortzen ziren erosketak egitera eta asko saltzen genuen. Baina orain, gutxi.

35 bat urte daramatzat asteazkenero Ordiziara etortzen. Baina azoka bereziko lehiaketetara ez naiz aurkezten. Ni saltzera bakarrik etortzen naiz. Eta beste batzuek bezala, egun horretarako ez ditut barazki bereziak ekartzen.

Beraz, azoka berezia, guretzat ez da hain berezia izaten. Egundak pasarako, gauzak ikusteko denborarik ere ez dugu izaten.

 Loinaz Agirre

Azokaren biharamona

Jai giroa izan zen atzo nagusi Ordiziako kaleetan, beste behin gehiago, azoka berezia ospatu baitzen. Jendea kosta egin zitzaion Ordiziara inguratzea, baina hamar t'erdia ezkerotik, nahiko lan izan zen han eta hemen ibiltzea.

Aurtengo edizio honetarako dena den, antolatzaileek zabaldu egin zuten azokaren esparrua: nekazal tresnak Ordizia kalean, eta artisauek eta bestelakoak Urdanetan.

Barazki, fruitu, perretxiku, gazta, behi eta oilorik bikainenak bildu ziren. "Ene, horiek bai sagarrak!", "ez nekien perretxiku hori ona zenik", "a ze kalabaza!"... edozein momentutan entzun zitekeen, talo eta txorizoen usaina nabarmen zen birtartean. Epaiaren ordua iritsi eta ondoko sariok eman zituen epaimahaiak:

Fruituetan, lehen saria, Idiazabalgo Ramon Aseginolazari eman zioten. Barazkietan berriz, Bailarraingo Maria Jesus Mujikari. Arlo honetan, epaimahaikideek lan zaila izan zuten, lehiaketara 54 partaide aurkeztu baitziren. Gipuzkoaz kanpoko lehiakideei ere saria eman zieten antolatzaileek. Gatikako Joxe Etxeberriari, hain zuzen ere. Perretxiku erakusketa onenaren saria, Donostiako Imaz anaiek jaso zuten. Oiloen sailean, Francisco Quiros ordiziarrari eman zioten. Eta gaztarena azkenik, Mutiloako Mari Kontxi Aldasorok.

GOI  **ME**

GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77 88 17 93 - 20240 ORDIZIA

KALITATEZKO ELIKADURA OSASUNAREN OINARRIA

** Janari onak ez du zertan luxu artikulu izanik!
* Eros bertako produktuak! Hauek eskeintzen dizute kalitate onena.*

BASERRITARREI NOLA DIHOAKIEN ETA ZER EGIN PERIARI EUSTEKO

Lizarraga: "Asteazkeneroko azokak argi gorriak pizturik ditu"

"Baserritarren periaz" aritu gara gehienbat Jose Anjel Lizarraga "Goimen" Elkarteko Presidentearekin. Asteazkenorokoaren "Polaroid" argazki moduko bat egin digu eta baita zein klabeetan lanean jarraitu behar den apuntatu ere.

Ordiziako Azoka osotasun batean tratatu beharko litzateke "Goimen"eko Presidentearen ustez, postuzaleez gain, jende asko bizi baita hortik. Duela gutxi arte Ordiziakoak markatzen zuen prezioa, gaur egun ez du esistitzen ia horrek. Belaunaldi berrien parte hartzerik gabe, urtetik urtera gutxiagotzen joan liteke azoka. Ordiziako Udalerriak dauka bere azoka "saldu beharra", logikoki. Hari hortatik dabil, antza denez.

Aldaketa latzak

Nekazal munduan eta gizartean aldaketa batzuk izan dira aspaldi batetik honuntza: eguneroko bizimoduan, nor-



berak behar dituen elikagaiak erosteko orduan, ohitura eta modak aldatu egin dira. Eta eragin bat izan dute merkatu guztietan. "Momentu honetan Ordiziako azoka egun edo asteroko erosketalekua baino gehiago da baserritar eta beste herritar batzuen 'festa-egun edo gune', peria ikusi, tabernetatik ibili...". "Eroski" hor dago jendearen behar berriak asetzen, emakumeek lan egiten dute etxez kanpo, gazteek beste ohitura batzuk dituzte...

"Gero, ikusten da baita ere baserritarren arteko sal-erosketa erak aldatu

egin direla. Lehen Goierriko arkumak, oilaskoak, e.a. Ordiziatik pasatzen ziren; orain hiltegiara joaten dira eta harakin eta maioristak ez datoz erostera (egun-pasa bai, ordea)", dio. Oraindik, halere, kanpoko jendea badator eta irabaziak uzten dituzte Ordizian. Horri eusteko ahaleginak egin dira hemen eta egiten segitu beharko.

Sal/erosle gazte gutxi

Baserritar postuzaleen eragina gutxitzen doa, ordea. Perian barazkiak, baserriko ogia, gazta, lorak, arraultzak erosten dituzten erosleen %75a 55 urtetik gorakoa da; horietatik %80a emakumezkoak, %20a gizonezkoak. Erostenen %20a suposatzen dute 35 urtetik 45 bitartekoak eta %5a bakarrik 35 urtetik beherakoak. Bataz beste 400 bat erosle pasatzen dira asteazkenoroko azoka inguru hortatik. 63 bat baserritar postuzale daude, fruituzaleak, e.a. kontatu gabe (aparteko azokan gehiago, noski).

Saltzaile horietatik gehienak 50 urtetik gorakoak ditugu; 45 inguruokoak oso gutxi eta 35etik beherakoak bi ba-

ZELAETA NEKAZAL TRESNAK

Carlos Oiarbide Albizu



Banatzaille ofiziala

Zelaeta baserria Zumarraga bidean, ORMAIZTEGI 161515 Faxa: 882778



DIVA

PENTSU ETA ONGARRIAK

JUAN IGARAN, S.L.
Olarraín Auzoa z/g
167 apartatua
(943) 65 13 14 — 65 36 84
FAX: (943) 65 11 87
20400 TOLOSA

karrik (Goierrikoez gain, Tolosaldeko batzuk eta Azpeitialekoak ere etortzen dira). "Horrek esan nahi du erosle gazterik ez dagoela, ez eta saltzaileerik ere. Garbi ikusten da Azokaren klabeak nondik joan beharko diren: saltzaileak eroslea behar du, eta, eroslea ekartzeko, zer egin? Nahiz jendeak jangai-merkatu bezala ez eduki hau, jai-topagune bezala badauka. Maila horretan, bertako Udalak hartu duen jarrera (azoka-dinamizatzailerik bat hartuz hau berpizteko) oso interesgarria da".

Betiko postuzalea aldaketan aurka

"Ordiziako Azoka" marka sortzeko asmoak egon dira, aidanez. Jose Anjelek ez du oso garbi ikusten hori. Ikerketa sakonak egin beharko lirateke, ordea, hori baztertu aurretik. Izan ere, "orain etortzen diren baserritarrok ez baitute ezer entzun nahi aldaketetaz. 50 urtetik gorako jende horren ikusten da gehienak ez direla guztiz profesionalak, beren diru-iturri osagarria da hau, fabrikakoa izan liteke garrantzitsuena, salbuespenak salbu. Adinean sarturik, motibazio berezirik ez daukate. Diotenez, berauen seme-alabek ez dute ezer jakin nahi, azokatik ez dagoela dirurik, zertarako hasi behar duten mugitzen..."

Aldaketak daukaten statusa galtzea ekarriko lieke hainbati (profesionalei ez bezala), generoen kontrola. Aldaketetan ez baino, gaurkoz erosleak aurrean dituztela sinisten dute bakarrik. "Goimen"ekoa galderak eginez ibili da, gazteengandik hasita zerbait alda edo egin ote daitekeen. "Zaila ikusten dut. Baserritarrek aurkeztu behar duen giza-faktore hori ez dago. Horrek ez du esan nahi toaila bota behar denik: bilerak asko egin, gazte motibatuak bilatu edo, beharbada, Udaletxe edo istitu-



Arg.: Dioni

zioen aldetik bideak jarri beharko dira gazte horiek inguratzeke. Baita ere, akaso, azkenaldian sortu diren E.H. mailako "label"ak erabili beharko lirateke; "Euskal Baserri" markarekin adib., barazkiak saltzea posible litzateke, horrek badu atzetik kontrol, irudi, propaganda bat. Orduan, gaurko erosle gazteek igoal garrantzi bat emango diote". Tresna hori aproposa da erosleak sentsibilizatzeko.

Azoka biziarazteko zabalik

Azokak izena eta bizitza ematen dio Ordiziako herriari, taberna eta dendari. Gaur egun inor gutxi hurbiltzen da bertako Enparantzako postuetara bakarrik. Bisitariek beste erosketa batzuk egiten dituzte horren aitzakian. Goierriko baserritarrek ere euren erosketak egiteko hartzen dute libre egun hori: erremintak direla, txitak, indioilarrak, pentsuak, e.a. Saldu adina erosten dute. Nekazal ikuspegitik haratago lan egin beharko litzateke, Lizarragaren ustez. "Plangintza integral bat behar da, ez-pairik gabe. Herri bezala interesak

daude eta geuk edo beste edozeinek baino lan hobea egin dezake Udalak. 'Goimen' beti prest egongo da laguntzeko, baserritar eta salerosketa maila horretan ahal dezakegunean".

Azoka pizteko pilota partiduak antolatzea edo gisakoren bat? galdetu diogu. Bera ez da ausartzen hainbeste esatera, hori Udalaren eginkizuntzat dauka. "Baina jendea erakartzeko, egun horri eusteko planteamendu batzuk egin beharra daude". Aldi berean, Azoka bailararen zerbitzura ere bada- goenez, Goierriko udalek zerbait egingo ote luketen? "Beste zenbait azokatxo ere badaude Goierri. Ez dakit zenbat bustiko liratekeen. Nik uste baserritarrek gehiago bustiko liratekeela Ordiziako azokarekin, beren interesa saltzea baita. "Goieki" agentziak ere bazituen asmo batzuk honen inguruan". "Goimen"ek ere bere jarra positiboa erakutsi du. Ateak zabalik daude.

 Jon Mikel Arano



JOSUNE

ESTETIKA ZENTRUA

Prolifting tratamendua
Erabateko depilazio progresiboa, minik gabe
Eguerditan ere zabalik
J. M. Barandiaran Plaza, 3 ☎ 88 28 88 ORDIZIA





Ibares Errotako IRIZAR ANAIK

* Errotan igotako talo-irina
* Gallina Blanca Purina banatzaileak
* Pentsu, hazi eta baserrirako tresnak
☎ 88 75 00 ☎ 88 12 09
LAZKAO ORDIZIA

Idiazabalgoa ote "Idiazabal Gazta"?

Aurreko **GOIERRITARRA**n adierazi bezala, "Idiazabal Gazta" izenarekin saldutako gazta guztiak ez dira hemen egiten. Geroz eta gutxiago. Idiazabalek duen "fama" hori nolabait aprobetxatu behar zela eta, Idiazabalgo Udalak gazta-inguruan suspertze-proiektu bat burutu du. Horretan aritu dira Maitane Urteaga eta Gurutze Aranburu "izaldarrak". Hona hemen lan horren emaitza.



Desprestigiaturik dago gaur egun artzantza

Ikerketa lana

Urtarrilean hasi eta ekainean amaitu bazuten ere, fruituak aurreraxeago jasoko direla uste dute, gauza asko baitaude oraindik koloka. Denboraldi horretan hamaika baserri eta txabola zapaldu omen dituzte, guztietara ere asmo berberarekin hurbildu direlarik: gazta eta artzai mundua piska bat eza-gutzeko. Honez gain Iparraldean ere izan dira eta, hori gutxi balitz, Suitza ere bixitatu dute. Iparraldean hemen bezala, artzaiekin izan dituzten elkarriketak oso aberatsak izan omen dira;

Suitzan, hizketa egiterik ez zegoenez, argazkien bidez jaso dute Idiazabala ekarri beharreko datu sorta. "Gure lana, batipat ikerketa lana izan da", dio-te.

Gazta gutxi, artzai gutxiago

Bi hutsune nabarmen aurkitu dituzte azterketan: "Idiazabalgo herriak ez duela ezer erakustekorik kanpotarrei, ez museo ez eta bestelakorik; bestetik, ikusten da produkzio falta handia dagoela Idiazabalen, geroz eta gazta gu-

txiago egiten direla. Ondorioz, gaztaren elaborazioa, nola egiten den eta ze kantitateetan sortzen den ere aztertu behar dugula uste dugu", dio Maitanek.

Gurutzek, berriz, zera dio: "Gutxi dira gaur egun gazta egiten jarraitzen duten artzaiak, baina aurrerantzean egiten jarraituko duen inor egongo al da? Ikusi dugunez, orain lanean ari diren artzaiak nekatuta daude, alde guztietatik trabak jartzen zaizkiela uste dutelako: batetik sanititatekoak eta bestetik konpetentzia izugarria. Gerora beraien bidetik jarraituko duen gazterik ez dela egongo esaten dute. Desprestigiaturik dago gaur egun artzantza. Ez omen dugu baloratzeko Iparraldean bezala artzaiei lana".

«Artzai Gazta» badago»

Emaitza horietara helduta, beren proposamena zertan den galdetu diegu: "Produktzioa gehitzea edo, gutxienez, mantentzea", Maitaneren ustez. Gurutzeren ustez, berriz, "Artzai Gazta" Kooperatiba Araiako lokalik gabe gelditzea borobil etorri zaie, orain "Idiazabal Jatorri Izena" duen lantegi bat Idiazabalen bertan kokatuko baita. "Udaletxe azpian antolatuko da elkarre honentzat lokala; bulegoa, gazta saltzeko denda eta biltegia izango ditu,



10 Ind. Pol.
40-41 Pab.
☎ 88 91 00 - 04
Faxa: 16 08 06
Salbatore
BEASAIN




✓ P.V.C. ETA POLIETILENOZKO TUBERIA ETA OSAGARRIAK

- Euri uretarako PVC-ko tuberia.
- Saneamendurako PVC-ko tuberia.
- Drenajeetarako PVC-ko tuberia.
- Janariekin erabiltzeko polietilenoazko tuberia.
- Nekazal erabilerarako polietilenoazko tuberia.

✓ ERREGISTRO ETA SARETXOAK FUNDIZIOAN

✓ ERAIKUNTZARAKO TRESNERIAREN SALMENTA ETA ALOGERA

MUNDUATE
Erlojutegia



TISSOT

Swiss Quality Time

BANATZAILE OFIZIALA

100 urte baino gehiago
Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1
Tfona: 88 12 72

ORDIZIA


Arriarango urtegia martxa bizian

Arriarango urtegiaren lanak amaitu dituzte jada. Uztailaren 28an inaguratu zuten eta era honetan, Goierriko aspaldidanik izan duen ur arazoari irtenbidea eman zaio Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak adierazi dutenez: "Ur-hornikuntzan Goierrikoa zen punturik beltzena eta dagoeneko konpondurik dago".

4.850 milioi pezeta kostatu da urtegia eta depuradora. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Diputazioak, erdibana, ordaindu dute, Europar Batasunaren dirulaguntzekin.

57 metrotako alturako hormigoizko presa, 3,2 milioi metro kubiko urentzat lekua dauka Arriarango urtegiak. Inguruko bost erreketako urak biltzen dira bertan, Beasain, Ordizia, Lazkao, Ormaiztegi, Olaberria, Idiazabal eta Segura herriak hornitzeko. Aurrera begira, Itsasondo, Arama, Alzaga eta Legorreta hornitzeko asmoa dago. Ura edangarri egiteko depuradora edo araztegiak, segunduko 200 litro ur tratatzen ditu.

Arteak eta urtegiak bat egin du Arriaranen. Hormigoizko presak sortzen duen ingurugiroarekiko inpaktua arintzeko, Nestor Basterretxearen bi eskultura handi jarri dituzte presaren erdian. Presaren aurrealdean lore-on-



tziak jarri dira eta paretan berdea nabaritzeko dela dirudi.

Era honetan, aspaldidanik Goierriko urtegia egiteko zegoen asmoa errealtate bihurtu da. Gogoratu, 70. eneko hamarkadan, Segura eta Estanda urtegiak egin nahi izan zituela Diputazioak. Baina herritarren aurkako jarreraren aurrean, plana atzera bota, eta Arriarangoa egitea erabaki zuen.

Arriarangoari esker, indar haundixeagoarekin datorkigu kanileko ura. Batzuek lehen geneukana baino hobe

dela diote, beste batzuk agortze-arriskurik ez dugula izango hemendik aurrera udaldian, eta batek baino gehiagok ura laister garestituko digutela.

Aurrera begira Legorreta eta Ikaztegieta artean, eta Zaldibian egiteko asmoa dagoen beste bi urtegiarekin --Ibiur eta Amundarain-- Goierriko plan hidraulikoa amaitutzat emango da.

 **Loinaz Agirre**
Mikel Aramendi

HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



- * HORTZEN EDERKUNTZA
- * HORTZ EZARKETAK
- * MATRAIL-HEZURREKO ARTIKULAZIOAREN TRATAMENDUAK
- * PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN



**GRUPO
VITALICIO**

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUAU

Esteban Lasa, 3 ☎ 160486 BEASAIN

Usurbeko jaia 9ra arte atzeratua izan da

Joan zen igande goizean izan genuen eguraldi kaxkarra ikusirik, Usurbe Mendiko jaia hilaren 9ra arte atzeratu beharrean izan zen Beasain Mendiko Elkartea.

Ekitaldiak dena den, mantendu egingo dituzte. Suzirik emango diete hasera egun handiari. Jarraian, 11.00etan, Usurbeko Gurutzean meza izango da, trikitilari eta bertsolariekin. Eguerdiko 12.00etan, Azkonabietia eta Jau-regi trikitilarien lehen saioa izango eta ondoren, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Maddalen Lujanbio bertsolarien jarduna.

13.00etan, urteroko omenaldien txanda izango da. Aurten goan, Arrieta baserriko Maria Garaialde Goikoetxea omenduko dute. Jokin Leunda ere gogoan izango dute bertara hurbildutakoek. 14.30etan bazkaria hasi aurretik, herri kirolak izango dira, Beasain Mendiko taldea, Olaberriakoaren aurka.

Tripak ondo bete ondoren, txikienek beraien abildadeak erakusteko aukera izango dute, eta baita Rafa Aldasoro magoaren magia gozatzeko aukera



Maria Garaialde omenduko dute Usurben. Arg.: Fotoetxe

ere. Azkenik, 18.30etatik aurrera, erromeria izango da.

Jubilatuen bazkaria

Azken urteotako ohiturari jarraituz, 65 urtez gorako jubilatuek (bikotearekin nahi izanez gero) herri bazkaria eta

omenaldia jasoko dute hilaren 18an. Kiroldegian, 13.30etan hasiko da bazkaria. Dena den, txartelak, hilaren 15a baino lehenago jaso beharko dira Udaletxean edo Zaharren Egoitzan. Txartelak jasotzeko garaian, 300 pezeta ordaindu eta nortasun agiria erakutsi beharko da.

Liburutegiko lanak

Batzuon oporrak, urtean zehar egin ezin diren lanak egiteko aprobetxatzen dira. Liburutegian horretan aritu dira, espazioa hobeto aprobetxatzeko. Hormaren bat edo beste, eta kristalezko apaingarria bota egin dituzte. Hormak margotu, zorua lixatu, apal berriak jarri... Era honetan, orain artean gorderik egon diren 500 bat liburu lekua izango dute apaletan. Hemendik aurrera, informatizazio programak lehenbailehen ezartzea da asmoa, arduradunei lana asko erreztuko baitie. Informatikari esker, irakurleak nahikoa izango du botoi bat zapaltzearekin, nahi duen informazioa lortzeko.

 Loinaz Agirre

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



Kale nagusia, 35 Santa Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 16 00 44
BEASAIN ORDIZIA

**MARI JOSE
MERTZERIA**
Kinkila-denda

☎ 887267
S. Inazio, 14 (Galeriak) BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariartz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

Jose Mari Salinas
Auto elektrizitatea

Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfona: 88 21 49 BEASAIN

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA

Gurutze, 2
☎ 88 26 31

LAZKAO

"Troia" meategiari buruzko azken erabakiak

Honez gero goierritar gehienek ja-kingo dute Troia meategia Mutilo eta Gabiriako lurretan aurkitzen dela eta bertan batez ere beruna, zinka eta kobrea hustiratu izan dela 1986 urtetik 1993ko ekainera arte. Azken data honetan, enpresak ordainketa etena edo geldialdia ezartzea erabaki zuen eta geroztik makina bat zurrumurru entzun badugu ere, alegia, berriro lanean has-tekoak direla eta abar, uztailearen 13an eta abuztuaren 1ean Mutiloan bi herri hauetako alkateek Ingurugiro, Industri eta Energia Saileko arduradunekin egindako bileraren ondorioz honako erabaki hauek hartu dituzte meategia bera eta ingurua lehen zegoen bezala uzteko:

- Ipar eta hegoaldeko tximiniak itxi eta era berean ipar eta hegoaldeko sa-rrerak.

- Urtegiaren dauden hondakinak lurrez estaliko dira eta honetarako Iturrioz Eraikuntza enpresarekin hitzarmena sinaturik dute, eta jadanik ari dira egin-kizun horretan.

Zenbait adituen ustez, zail izango da urtegi horretako uretan arrainak bizi-tzea baina hegaztiak bizi ahal izango dira eta gaur egun badira bosten bat koartza edo garza eta ahate batzuk. Ur horretan zapaburuek bizirik iraun ahal izango lukete eta hauetaz elikatuko li-rateke hegazti horiek.

- Garbiketako instalakuntzak saltzeko aukera izan ahala kenduko lirake. Nolanahi ere, hegoaldeko honako erai-kuntza hauek kenduko dira: aterpea, zaindarien txabola, biltegiak. Iparral-dean 4. zinta kenduko da eta ura bon-beatzeko instalakuntzak, konpresora eta abar.

- Goian aipatutako lan nagusi hauek gutxi gora-behera sei hilabetetan bu-rutuko dira.

"Makilari" aldizkaria kalean

Abuztu hasieran argitaratu zen "Ma-kilari" aldizkariaren laugarren alea, eta herrian bizi diren guztiei edo gehienei jadanik banatu bazaie ere, abuztuan zehar jendeak kanpora joateko ohitura



duenez, oraindik ere izango da herritik kanpo bizi den gabiritarren bat ale hau jaso ez duena. Honela bada, Udale-txean oraindik ere badira ale batzuk eta bertara hurbiltzea nahikoa dute aldiz-kariaren ale bat eskuratzeko dohainik.

Gabino Murua

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA

ALTZAGARATE JATETXEA

■ Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaiak, e.a. ospatzeko
■ Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Tfonoa ALTZAGA



Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela. Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak kontu korrontean eta ohiz-ko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesio-naltasun garbiko bidean.

Arantzazu Barriokoen auzo afaria

Aspalditik datorren ohitura omen da Arantzazu Barrioan (horrela esaten zaio Seguran) auzo-afaria egitearena, baina garai batean alkateari baimena ez eskatzeagatik debekatua izan zen.


Duela 35en bat urte hasi ziren berriro auzo-afaria egiten, hasiera batean, gainera, gizonezkoak bakarrik. Apaizak ere (eliza auzoan dagoenez) gonbidatzen omen zituzten. Afalondoreneko kalejirak ibilbide zehatza zuen, behekaldera bolalekuraino eta goialdera, berriz, plaza-iskinaraino, hortxe baitaude auzoaren mugak.

Nahiz eta barrioan ez bizi, bertan negozioren bat edo etxeren bat dutenek ere badute afarira joateko eskubiderik. Azken urteotako festa elizako portikopean izan bada ere, Kamiñotxikiñe

aurrean ezagutu duenik bada; Arantzazuko plazako arboladian, errebotean eta frontoian ere egin izan da.

Aurtengo afaria hilaren 10an izango da, barrioan hildakoen alde ematen den mezaren ondoren, bertan izango direla 87-89 urtetako Ramona Lezeta eta Maria Albisu. 50-60ren bat lagunek parte hartu ohi dute eta, hala erabakita, familia bakoitzak entsalada eta oilaskoa eramaten ditu etxetik, gainerakoa "Imaz"enetik ekartzen delarik (aipatu etxe hortakoek utzi izan dituztela mahaiak, e.a.). Iazko afaria 525 pezetatan atera omen zitzaion bakoitzari. Afalondorena auzoko txistulariek alaituko dute.

 Joseba Telleria



Auzo-afaria Portikopean, hilak 10ean

ORMAIZTEGI

Arriarango ura

Aurtengo uda lehor samarra joan den arren, ez dugu urarekin arazorik izan. Eta ez dugu izan, herriko putzua oso behean zegoela ikusirik, abuztuan Arriarango presako ura erabiltzen hasi ginelako, Goierriko beste zenbait herriari bezala.

Ur horri buruz, batzuek diote lehen geneukana baino hobea dela, kare gutxiago duela eta igertzen dela diferentzia. Beste batzuek hainbestearaino ere ez dela. Abantaila bat behintzat bada: arre- aldirik ez du izan eta arropak lasaiago garbitu ditugu. Baina, diotenez, ordaindu ere zertxobait gehiago ordaindu beharko dugu.



Odolkien hasiera

Urte-garaitsu honetan, uda amaitzera doala gogoraraziz, odolki- usaintagarriak hartu ohi ditu Ormaiztegi-ko kaleak. Zenbat mokadu goxo ez ote dugu jango 'ormaiztiarrok' hemendik aurrera, hotzari eta eguraldi txarrari aurre egiteko, eta, zergatik ez esan, sabelari atsegin emateko!

Eta izan ere, bakoitzari berea aitortu behar zaio, eta bisigua Getarian edo Orion izan ohi den bezala, odolkiak, besteak gutxietsi gabe, onenak Ormaiztegin.

 Iñaki Amundarain

KEMEN KIROLAK



Zumabakarregi, 1
Tfno. 88.51.68
ORMAIZTEGI



LADA

ARANDIA Garajea

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Tfnoa: 88 09 47

Iurre auzoa
OLABERRIA

Arkupe Tapiztegia

Tapizeak - Olie estalkiak - Edredoiak
Mantak - Maindireak - Mahai ohialak
Toailak - Gortinak eta osagarriak

Manuel Zeberio

J.M. Barandiaran Plaza
ORDIZIA

☎ 88 00 84

Festak etorri eta baita joan ere


Adin batera iristean geranean, gauza eta kontu zaarrei garrantzia ematen diegu. Garai batekoei ez diet ezer kentzen, bañan aurtengo festak ikusi eta gero, urte guzian orrelakoak bear genituzkela derizkiot.

Dianak erriko txistulari eta trikitilarien gain izan ziran. **Dantzaldiak** Dorronsoro anai-arrebekin, Joselu anaiak eta Iparragirre anai-arrebak. Danak oso ondo portatu dira. **Bertsolariak:** Espero zan bezela, jendeak ederki gozatu zuen Zeberio, Agirre ta Soroabalen bertsoekin. Oien buru eta mingañetan ez dago erdoirik. Ura bertsoak moldatzeko erreztasuna! **Pelota partiduak:** Gure artean bizi den Juanito Aldasoro segurarra enkargatu zan partiduak prestatzeko. Afizionatu goimallakoak ekarri zituelarik, partidu ederrak ikusteko zoriona izan genuen. **Erri kirolak:** Saralegitar anai arrebek lan bikañak egin zituzten egur ebaten eta arri jasotzen. Aien gerri eta belaunburuetan ez dago erreuma aide izpirik ere. **Dantza taldea:** Festen azken egunean, Donostiako Koruko Ama Birjiñaren Eskola Dantza Taldea etorri zitzaigun gure gozamenerrako. Bi ordu luzez etengabe jardun

ziran eta, ala ere, iñor ez giñan aspertu aiek txalotzen, apartekoak baitira. **Janari txapelketa:** Urtero, festen amaiera egunean, beti janari berezi baten txapelketa antolatzen da. Talde ugari artu zuten parte eta, urtero edo geienetan bezela, Amondarain eta bere kuadrilla txapeldun izendatu zuten Donostiatik ortarako "de propio" ekarri zituzten gastronomoek. Zorionak.

Kantillape

Aldizkari au illero argitaratzen du Itsasondoko Kultur Taldeak Udalaren laguntza osoarekin eta, Andra Maritan, ale berezia eskeintzen digu. Aurtengo au, urterik utsegin gabe, 7.a degu. Bada zerbait. Meriturik aundiena, gure us-tez, errian jaio edo errian bizi direnak osatzen dutela da. Oraingo au apaiñ eta dotorea degu, benetan. Lan sakonak, ariñak eta jostalariak ere agertzen dira bertan: Itsasondoko intsumisoak izenburuarekin, lan polita idatzi du Blanka Mujikak. Xabier Zeberio bertsolariak, piper eta gatzetz osatutako bertsoekin, erriko bitxikeria pranko kontatzen digu. Maria Anjeles Garmendia sukaldariak, Aloña Arzak egindako izketaldian menu bereziak eskeiñi



dizkigu. Gure eskoletako 8. malla-koek ikasturte bukaerako Mallorkarako bidaia kontatu digute. Guztiz interesgarri eta jankingarriak Iñaki Aizpuru, Mikel Aramendi, Iñaki Larrañaga, Arantxa Arza, Joxe Mari eta Esteban Otegi, Jon Mikel Arano eta Olatz Etcheberriaren lanak. Urtero bezela, erriko aitona batek ere kontatu dizkigu leengo gertaera xaarrak.

 Ibai-Ertz



OLANGUREN INSTITUTUA

"Ikastetxe euskaldun integratzaile eta publikoa"
IKASKETA ERTAINETAN ESPEZIALISTA
Erabat euskaldun eta dohainekoa

Izen emateko epea irailaren 7tik 12ra
Kurtso hasiera: irailaren 30ean
☎ 88 08 62 - 66 ORDIZIA

DE LA CUESTA

Etixerako eta bestetarako
oihal biltegia

Plaza Nagusia, 7
☎ 880432

6 posta kutxa
ORDIZIA




Tfona: 885500 ORDIZIA

RUGBY-ZELAIAREN gaia oraindik aidean dago. Aurtengo Udaren aurrekontuetan Altamirakoaren berritzea onartuta dagoen arren (80 miloi), atzerapen bat izan du. Proiektua egina dago aidanez. Dena den, bitartean, Trevijanon jokatu ezingo balitz, Altamiran jokatzeko aukera izango lukete rugbyariak. Aurten ere 1. mailan egongo da rugby taldea eta garaipen asko lortzeko asmoak dituzte.

JUANITO RUBIO sukaldari eta korrikalariak, 26 urte geroago, 68.an agindu zuen promesa bete du: berriro Larraitz-San Migel-Larraitz ibilbidea burutzea. Bestalde, Mixel Cuadrado herrikidearekin eta Paulino Cano beasaindarrarekin batera New York-eko maratoi handia korritzera joango da Juanito azaroaren 6an.

JAKINTZA IKASTOLAREN AURRESKOLAK urtea bete du. Gipuzkoako eskolik osatuenetakoa

den honek, aurrerapen ugari ditu eta 2tik 5 urte bitarteko 160 ikasle biltzea lortu zituen joandako ikasturtean.



XABIER ARANBURU, "Txato" (edo "Txatito") baletoko dantzari ordiziar ospetsua hil zeneko urteurrena ere datorren 24ean beteko da. Jakintzatik pasea, txikitatik zaletua,

Goierrri euskal dantza taldean eman ziotuen lehen pausoak; bere arreben eraginez ikasi zuen baleta Londresen eta Iraneko Balet Nazionalen, Espainiakoan eta Holandan aritu zen maila gorenetara iritsiz. Gasteizen irakasle gisa zegoela hil zen 32 urterekin. Euskal Herriak dantzari eman dion figura inportanteena gogoratu nahi du ohar txiki honekin GOIERRITARRAK.

GAZTE-INFORMAZIO BULEGOAK eta bere arduraduna den Koro Ruizek 3 urte bete berri dituzte eginkizun hortan. Geroz eta gazte-jende gehiago pasatzen da bertatik, denetarik informazio bila, baina gehienbat, unibertsitate-karreren eta oporretan zer egin daitekeen berrien bila. Gainontzean, "Gaztemaniak" izenpean antolatuta izan duten terrore eta fantasiatzko zine-zikloaren balorazio oso positiboa egin du Korok.

Aitor Calvillo eta J.M.A.

ATAUN

Ataun Kirol Elkarte (AKE) sortu da

Hilabete honetan bertan bere burua ezagutzera emango duen elkarteak, edozeinentzako kirola bultzatzeko asmoz jaio dela dio, eta lau sail hauek bantzen ditu: areto futbola, pilota, mendi irteerak eta mendi bizikleta irteerak.

Arlo hoietako bakoitzean, nahi duten guztientzako tokia izango bada ere (ohizko futbol eta pilota txapelketak, adibidez), dagoeneko federatuak diren taldeak ere badira ordea. Areto futbole-rako bi talde osatuta daude, bata neskena eta bestea mutilena. Hauek astero izango dituzte partiduak Gipuzkoan zehar, hamabostean behin Auzoeta Udal Kiroldegian izango ditugularik.

Konpromezua hartu duen jendea bada beraz; Zuzendaritza Taldea ere izendatua dago, eta orain bazkideak behar dituzte. Bitartean, esperientzia polit honi hasiera emango diotenak ikuskizuna eskeintzeko prest ditugu.

Joxe Begiristain



Areto futboleak jokatuko duten neskak. Zutik daudenengandik pikotxean daudenengana eta ezkerretik eskubira: Arantxa Altuna, Ainara Aizpurua, Aitziber Barandiaran, Eneider Sukia, Naiara Munduate, Maria Tato, Maitane Dorronsoro, Pili Imaz, Maider Urdangarin eta Agurtzane Auzmendi.

Arg.: Joxe Begiristain

Udako bisitariak itzuli dira

Irailak, agorra lege zaharrear esanda, bildu ditu ibaiak bere ubidera: bertakoek ekin diote urte osoko lanaldiari eta kanpokoek hankak jaso dituzte guretik. Aspaldiko barnetegia da Zaldibia Bizkai aldeko AEKn euskara ikasten dutenentzat. Aurten ere hemen izan ditugu uztaile eta abuztuaren, lau txandatan banaturik, hainbat ikasle. Euskara ikasteaz gain herrian animazioa jartzen ere saiatu dira gogotik. Ondo joan eta nahi duzuen arte.

Bestalde, 2. urtea zen auzolandegietako gazteak gure herrira etortzen zirela. Abuztu osoa eman dute Enerioko galtzadan lanean (goiz partetik) eta hemengo ohitura eta kultura ezagutzen. Hauek ere gustora egon dira herrian; eta iaz baino lan gehixeago atera dute, aidanez, eskuetatik. Aurten ere antolatuta dira Zaldibian gazte auzolandegiak. Estatu osoko eta Euskal Herrian bertako gazte hauek ere itzuli dira euren etxetara.

Sagar ikusgarriak

Zubiondoko Josefa Etxeberriak eskuetan daukan sagar honek 815 gramo pixatu zituen. Harrigarria benetan, baina ez pentsa bakarrik denik; tamaina beretsuko senide gehiago ere izan ditu. 600 eta 700 gramo inguruko aleak ematea normal-normala omen da sagarrondo horrentzat. Egia osoa esateko, amonak eskuetan daukan sagarra Kanpaingo Pako Imazen baratzen



hazia da eta harengana jo dugu xehe-tasun batzuen bila. "Izen teknikoan ez dizuet esango" ailegatu digu Pakok, gure galdera nondik etor zitekeen somatu orduko. "Guk libra saarra eo... esaten diou. Saar gazie da. Oain hamazazpi urte aldatu gendun, eta handik bi-hiru urte barru hasi zan ematen. Urtetik urteaa gehiau ematen jun da, baino aurten aine sekula ez. Txerri-saltzea jun, da Zamudioko sikiatrikoko baatzazaiek eman tzin. Geo ta jende gehiau etortzen zaiu txertatzeko metu eske".

Arruko Xabier, txapeldun segan

Abuztuaren 14ean jokatu zen Larraitz segalari hasi berrien arteko Gizpuko Txapela. Bi segalarik hartu zuten parte: Zaldibiko Arrue baserriko Xabier Mendizabal eta Gazteluko Andoni Goikoetxea. Arauek agintzen zuten eran, ordubeteko saioa egin zuten segalariak; eta orubete horretan belarrik gehien, pixura, zeinek ebaki zen jokoa.



Zaldibitarra atera zen garaile, 2.782 kilo belar ebaki zituelarik. Gazteluarrarena ere ez zen lan txarra izan, baina, Mendizabalekin konparatuta, nahikoa baju geratu zen; 2.288 k. pixatu zuen Gaztelukoak botatako saileko belarrak.

Egoki antolatuturiko saio honek izan zuen beste ikuskizunik ere: **Lazkaoko Agirrezabala eta Erasun aiatararren arteko norgehiagoka**. Hauek, besteez ez bezala, 1.000 m² ko saila ahalik eta denbora gutxienean ebakitzea zuten euren egitekoa. Kasu honetan, Erasun izan zen irabazle, oso segundu gutxiko aldeari esker. Bien ala biek ere hogeita hamabosna minutu inguruan amaitu zizuten Larraizko belazeak emandako lanak.

Testu eta argazkiak: Rufino Iraola

GOIERRITARRA

3.700 ale
12.000 irakurle

GOIERRITARRA



88 96 12

OIANGU

TABERNA

Euskalerrria z/g
Tfona: 88 30 03

Ordizia

LIUZ, S. L.

- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

Tfona: 88 77 90
Mallotz- 25. Pab.

Faxa: 88 82 67
ORDIZIA

**MASAJISTA
DIPLOMATUA**

Xole Zubeldia

Euskalerrria, 8
ORDIZIA 88 10 52

Itsaso-Kizkitza-Itsaso 14 minututan

San Bartolome jaiak ospatu dira Itsason. Festa egitarauak San Bartolome bigarrenenerako Xanti Azurmendi Telleria matximentarrak Itsaso-Kizkitza-Itsaso marka ezarri nahi zuela adierazten zuen. Eguerdiko hamabiak eta laurden aldera, han abiatu zen Itsasoko eliza ondotik gora kanposanturantz eta baita berehala begibistatik galdu ere, 8 minutu eta 30 segundutara Kizkitzako gainetik atxafero batek bertara heldu zela jakinarazi zigun arte. Kizkitzako ermitari buelta eman eta 5 minutu pasatxoan abiapuntuan genuen berriro. Guztira 14 minutu eta 75 ehuneko. Ea nork hobetzen duen!

Animazio polita piztu zuen, izan ere, ama Itsasoko Kattaindegikoa du eta aita, berriz, Ezkioko Txantxokoa. Hala ere, hogeita hamalau urteko gizon honek badu afiziorik eta baita txapelik ere korrika munduan. Abuztuaren 6an Gasteizen 50 lokots edo koxkola biltzen Euskadiko Txapelketan lehena izan zen eta Gipuzkoakoan bigarren. Iaz alderantziz suertatu zitzaion, Beasainen jaso zuen Gipuzkoako lehen saria. Pistan, bestalde, 1.500 metroan, Gipuzkoako Txapelketan bigarren izan da. Hemezortzi urterekin hasi eta orain



Xanti Kizkitzatik Itsasorako bidean

artekoan berak dituen markarik honek hauek dira: 800m. 1' 52'', 1.500 m. 3' 48'', 5.000 m. 14' 35'', 10.000 m. 30' 09''.

Mandubin Ardizakur Txapelketa

Arantzazuko egunean, Irailaren 9an, aurten jaiegun gipuzkoarrentzat, Mandubiko gainean Gipuzkoako XXVI. Ardizakur Txapelketa ospatuko da, azken urteotan ohi den bezala. Parte hartuko duten ondorengo zakurren artean lehenbiziko biak Oñatin egiten den Euskadikora joango dira: Jose Antonio Arrillagaren "Txiki" eta "Txati", Ramon Larrañagaren "Riki", Migel

Garaiarren "Xarpa", Pedro Seguiolaren "Lagun", Jesus M^a Plazaolaren "Mendi" eta "Nere", Luis M^a Anduezen "Lagun", Eugenio Arretxeren "Lista", Guillermo Seguiolaren "Alai" eta iazko txapelduna, "Mendi" Pedro Seguiolarena. Herritarrok parte hartuz ospakizun honi eutsiko ahal zaio!

San Lorentzo

Abuztuaren 7an, San Lorentzo egunetik hurbileneko igandea, Itsason dagoen ermitara jende multzo polita gerturatu zen

arratsaldeko 7etan emaniko mezetara, ohitura zaharrari eutsiz.

Kizkitzako eguna

Irailaren 8a Kizkitzako gainari joan-etorria egin gabe gutxitan pasatu izan da asko eta askorentzat. Aurten ere, eguraldia lagun, halaxe bizi ahal izango dute kostaldetik hasi eta inguruotatik hurbiltzeko aukera dutenak, eguerdi aurretik mezarekin hasiz, ondorengo erromeriaz eta bazkariak gozatzuz, eta bukatzeko, Mandubi aldean gelditu txoko bat eginez.

 Pilare Mujika



OTEGI-UNANUE

ERAIKUNTZA ORO EGITEKO PREST
Etxebizitzak berriak salgai Ordiziako Elkano kalean

Bekokale 17-1.

ITSASONDO

☎ 16 02 22

OTSAILA

ITZULPEN ZERBITZUA

HIZKUNTZAK:
Euskara, Frantsesa,
Ingelesa, Gaztelera

Urdaneta ☎ 158851 ORDIZIA

Modulo hau

3.000 pzta.

kostako zaizu

10 aldiz eginez gero

2.500 pzta.

KUKO Jatetxea

—Haragietan aukera handia

—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g ☎ 88 28 93

ORMAIZTEGI

Burdinezko hiru goierritar triatleta

Aitor Eskalante, 24 urte, beasaindarra; Etor Mendia, 26 urte, lazkaotarra; Jose Manuel Rivas, 35 urte, ordiziarra. Hirurak, abuztu bukaeran Holandako Almere hirian izan ziren bertako ironman motako triatlotaian parte hartzeko. Igeri 3,8 Km., txirrinduan 180 Km. eta korrika maratonia (42,192 Km.) egin behar izan zituzten. Aitor eta Etorrek 10 ordu eta 27 minututan bukatu zuten eta Jose Manuelek 11 ordu eta 45 minututan.

Hiru kirolari ezberdin

Neurri horretako balentria egitera ez dira egun batetik bestera iritsi. Aitorrek lehen saskibaloiean jokatzan zuen, "utzi nuenean neure kontura korrika hasi nintzen. Pako Aiestaran eta hauekin juntatu nintzen eta triatloi munduan sartuta zeudenez ni ere animatu eta iaz hasi nintzen laisterketetan parte hartzen". Etor berriz atletismo mundutik dator, gazteagoa zenean hainbat sari ere irabazi zituen. "Orain dela bi urte hasi nintzen triatloierako prestatzan, baina istripu bat zela eta utzi behar izan nuen. Iaz berriz IVEF edo EKI bukatu nuen eta lan praktikoko bezala maratonia prestatu nuen", dio bere lehen triatloia aurten Zarautzen egin duen lazkaotarrak. Jose Manuelen jatorria berriz guztiz bestelakoa da, "ni lehen gogor lan egin eta astebukaeretan juergak egiteko bizi nintzen. Orain dela urte batzuk igerilekura joaten hasi nintzen eta duela hiru korrika egiten. Honela lehen Behobia-Donostia ordu 1 eta 10 minutuetan egin nuen, gero gehiagora animatu eta iaz hasi nintzen triatloiak egiten", dio.

Bide luzea Holandaraino

Aurten Zarauzko proba izan da parte hartu duten lehena. Gero Nizakoa, bertan egindako euriaren ondorioz, Etor txirrindu proban erori egin zen. Proba bukatu zuen arren ez zuen besteek bezala ondorengo triatloi motzen batean parte hartzerik izan.

"Urte haseratik genuen ironman baten gogo, entrenamendu eta fetxei begiratuta Kanadako bat eta Almere-



koa ziren egokienak. Diru arazoak direla eta bigarrena aukeratu genuen" diote kirolariek. Eta honela furgoneta bat hartu eta egun batzuk lehenago abiatu ziren. "Nizara autoz egun batean joan eta hurrengoan etorri ginen eta horrela ez dago ibiltzerik". Beraz, beste 1.000 partehartzaileen artean saioa burutzeko asmoz abiatu ziren.

"Txirrindua izan zen gogorrena, entrenamenduetan 140 Km.-tik pasa gabe geunden eta 180rako tarte hori benetan bukaezina egin zen. Gainera haizeak gogor jotzen zuen eta aurretik maratonia geratzen zela pentsatzea bakarrik..." dio Etorrek. Jose Manuelek ez zuen horrelakorik, "txirrinduan gaizki ibiltzen naizenez, maratonia iristeko gogo biziz nengoen, eta nahiko erraz bukatu nuen azken froga". Denbora ederra egin zuen gainera 3 ordu eta 15 minutu, beste biek berriz 3-35 egin zuten. "Nik txirrinduan Aitorrek baino 10 minutu lehenago bukatu nuen- dio Etorrek -eta bere zai geratu nintzen. Korrika egiterakoan gaizki zihoanez berari lagunduz lasaiago joan nintzen". Aitorrek baieztatu egiten du ondortik: "Bukatutakoan azkenekoa zela esaten nuen eta ondorengo bi egunak ere gaizki pasa nintuen". Baina dagoneko helburu berrietan pentsatzen ari da beasaindarra.

Diruaren arazoa bai luzea

Hiruak ere Arrikutz Antzizar Triatloi Taldekoak dira. "Beasaingo Arrikutz tailerrak laguntza bat ematen digu, Antzizar polikiroldegiak bere instalazioak uzten dizkigu, baina diru gehien poltsikotik jarri beharrean aurkitzen gara". Beasaingo duatloia antolatzerakoan ere diruz larri ibili ziren eta uste baino laguntza gutxiago lortu zuten. Holandara joan ahal izateko, Beasaingo festetan taberna bat jarri zuten eta kamixeta batzuk saldu. "Tabernan diru gutxi ateratu genuen, izen ematea ordaindu eta saltzeko 100 kamixeta ordaintzeko haina. Holandan, benetako taldeak zeuden, erropa egokiak, txirrindu onak, hoteletan lo egin... Gu berriz kanpinean egon eta ahal genuen bezala ibili ginen".

Aurrera jarraitzeko gogo

Aurten eginikoarekin, datorren urtean laguntza gehiago izango ote duten itxaropenez daude, beste ironman batean parte hartu ahal izateko. "Errodajeak asko balio du eta datorren urtean errazagoak egingo zaizkigu entrenamenduak. Kontutan hartu behar da gu zerotik hasi garela" diote, noizbait Hawaiiko ironman sonatura joatea helburu duten hiru burdinezko goierritarrek.

Mikel Albisu

Joseba Iparragirre idiazabalدارra 2. munduko trikiti-txapelketan

Joseba Iparragirre ez zen atzo goizean hasi soinuaren auspoak astintzen. 19 urte ditu.

Abuztuan Italian izan da eta bertan aho zabalik utzi ditu lurralde eta kultura ezberdinetako trikiti-kide eta zaletuak. Munduko bigarren trikitilari hoberenaren sari eta teknika onenarena jaso berri ditu. Berarengana hurbildu gara ea hitz batzuk lapurtzen dizkiogun.

- Italian izandako Munduko Trikitixa Txapelketan 2. gelditu zara. Konta iezaiguzu zerbait.

- Italiar batek irabazi zuen. 50 bat partehartzaile izan ginen. Epaimahaikoek ez dakit nola puntuatu zuten, baina italiarrak 100dik 100 puntu atera zituen eta nik, 99,5. Epaimahaikideekin hizeketan jardun ginen eta esan ziguten hasieran enpatea emateko asmoa izan zutela, baina azkenean, italiarrari eman zioten saria, eta neri, 2. saria eta teknikagatik eman zuten sari berezia. Oso gustora nago. Esperientzia polita da. Soinu ezberdinak entzuten dira horrelakoetan.

- Zein pieza jo zenituen?

- Bi pieza jo behar ziren eta biak, Kepa Junkerarenak jo nituen: kalejira bat eta arin-arin estiloko kanta bat.

- Panderojolerik eraman al zenuen?



- Ez, txapelketa hura soinuarentzat bakarrik zen.

- Noiz eta nola hasi zinen soinua jotzen?

- 9 urterekin hasi nintzen, duela 10 urte. Aitaren bultzadaz hasi nintzen. Aitari asko gustatzen zitzaion soinua, nik 9 urtekin afizio handirik ez neukan, baina aitak Martinekin konfidantza piska bat bazeukan, eta Martinekin hasi nintzen soinua ikasten.

- Abesti asko sortu al dituzu?

- Abesti asko jotzen ditut baina nik sortutakoak ez dira asko. Txapelketaren batean edo beste atera ditut abesti batzuk, baina gehienbat besteen abestiekin jardun naiz. Kepa, Martin eta horrelako fitxajeekin.

- Ez da erraza izango abestiak sortzea, ezta?

- Segun eta zein estiloko abestiak sortu nahi diren. Erraza da abestiak sortzea, baina nolakoak esan behar. Ez da ez batere erraza. Egunak izaten dira.

- Zer diozu trikitixa modernoari buruz?

- Nik oso ondo ikusten dut hori. Kepa eta Tapia oso ezberdinak dira estilo aldetik. Biak asko gustatzen zaizkit. Nik uste dut gauza berriak egin behar direla, beti zaharrekin jardun gabe. Ideak aurrera doaz eta oso ondo iruditzen zait. Baina hori egiteko kapazitatea eduki behar da.

- Zure burua trikitilari moderno bezala al daukazu?

- Ez, oraindik ez. Oraindik hasi egin naiz eta hori egitea ez da erraza. Ideak oso garbi eduki behar dira eta.

- Leku askotatik deitzen al dizue?

- Bai, aurtan dextente gabiltza festarik-festa.

- Irakasle lanetan ere jarduten zara, ezta?

- Bergaran eta Irunen nabil klaseak ematen. Nahiko gogorra da niretzat, pazientzia handia behar da eta. Ni baino zaharrago bati soinua erakustea nahiko arraroa egiten da. Inkomodo sentitzen naiz.

- Aurrera begira zein asmo daukazu?

- Urte bukaerarako edo maketa bat grabatzeko asmoa daukagu taldeak. Amaia Oreja panderojolea, Aitor ba-juak eta nik.

A.G. & L.A.


ARRIKUTZ TAILERRAK, C.B.

Autoen konponketa Orokorrak

Nafarroa Etorbidea, 53
Tfnoa: 88 52 00 • BEASAIN

PROBA-MAHAIA:

- Proba-Mahaiko Zerbitzu guztiak
- Frenoak
- Suspentsioa
- Norabide Zuzenketa
- PRE-ITV errebisioa



USABIAGA GRUAK



☎ 16 15 30 - 31 -32

Faxa: 16 13 00
ORDIZIA

10etik 400 TONA BITARTEKO GRUETAN ESKEINTZA ZABALENA

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxa: (943) 88 73 08